berria.info

Inprimatzeko bertsioa

Inprimatu

Irailaren 18an hasiko da Ipar Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa

Hogei bertsolarik parte hartuko dute, eta azaroaren 13an izango da finala, Donibane Lohizunen

Kepa Matxain. Donostia

Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoako bertsolarien lehia irailaren 18an hasiko da, eta finala Donibane Lohizuneko Jai-Alai pilotalekuan izango da, azaroaren 13an. Amets Arzallus iazko txapeldunarekin batera, 19 bertsolari arituko dira kantuan, 2008an baino lau gehiago.

Aurtengoa bigarren ekitaldia izango du Ipar Euskal Herriko Txapelketak, eta aldaketa ugari izango ditu parte-hartzaileei dagokienez. Karlos Aizpurua, Maddalen Arzallus, Mizel Mateo eta Egoitz Zelaiak aurtengoan ez dute kantatutako, eta Xan Alkhate, Joanes Etxebarria, Ramuntxo Christy, Maindi Murua, Mattin Luku, Bixente Hirigarai, Txomin Elosegi, Bixente Luku eta Ximun Cazaubon lehenengoz ariko dira.

Irailaren 10ean jakinaraziko ditu antolakuntzak txapelketari eta saioei buruzko xehetasunak, baina dagoeneko aurreratu du aurten XIX. eta XX. mendeetako Iparraldeko bertsolari eta koblakariak izango dituztela gogoan, «haiek gabeko bertsolaritzak ez zukeelako oinarrizko transmisiorik izanen». Joana Itzaina Bertsularien Lagunak elkarteko lehendakariak azaldu du txapelketaren webgunean eta komunikazio esparruetan aipatuko dituztela bertsolariok: «Alde batetik, erakutsi nahi genuen aurtengo txapelketako adinaren batez bestekoa oso apala dela, eta, bestetik, elkarteak 30 urte betetzen dituela, eta bertsolaritza aspalditik dagoela errotuta gurean». Lanean aspalditik ari badira ere, erronka berrietarako gogoz sentitzen dira, eta «irakaskuntzari indarra eman nahian, egindako bidearekin gustura eta proiektu berriz beteta» daude Bertsularien Lagunak elkarteko kideak.

Zaletasuna pizten

Egindako lanak, behintzat, eman du fruitua. Aurten, gazte uzta sartuko da txapelketan, 18 urte ingurukoak denak, harrobia sendo datorren seinale. «Amets Arzallus eta Sustrai Colina dira bertako puntako bertsolariak, eta horrek piper pixka bat ematen dio txapelketari. Gainera, haiekin kantatzeak gazteak motibatzen ditu». Dena den, bertsozaletasuna piztea da lehendabiziko helburua, eta gero gerokoak. «Hemen badugu beste alderdi bat ere, beste bertsolaritza era bat, txapelketatik kanpoko herri giroan ongi sentitzen direnak eta jendearengana iristeko gaitasuna dutenak. Bietan egin nahi dugu lan: bertsotarako grina piztu, eta, zergatik ez, puntakoak ateratzen badira, hobe».

Entzuleen batez besteko bat egiteak «ez luke zentzurik», Itzainaren ustetan. «Izaten dira saio batzuk oso jende gutxirekin, eta beste batzuk askoz gehiagorekin. Txapelketak beti erakartzen du jende berria, eta duela bi urte uste ez genituen kopuruak bildu genituen. Urteko saioetan horrek behera egin duen arren, badugu harmailak betetzeko ilusioa».

############

Parte-hartzaileak

Amets Arzallus

Sustrai Colina

Miren Artetxe

Odei Barroso

Ekhi Erremundegi

Xumai Murua

Mixel Xalbador

Patxi Iriart

Eneritz Zabaleta

Kristine Txoperena

Gillen Hiribarren

Xan Alkhate

Joanes Etxebarria

Ramuntxo Christy

Maindi Murua

Mattin Luku

Bixente Hirigarai

Txomin Elosegi

Bixente Luku

Ximun Cazaubon

############

© berria.info